

ESKOLAKO PATIOA (HLEA)

1. DESKRIPZIOA

- Esan zer ikusten duzun argazkiotan.
- Deskribatu lan egiten duzun ikastetxeko patioa.

2. AZALPENA

- Azaldu nola egoten diren antolatuta patioak.
- Ikasleen premiei erantzuten diete? Zertarako erabiltzen dute ikasleek patioa?
- Zer izan beharko luke patioak umeen gustukoa izateko?

Lagungarriak:

- Mugimendua sustatzeko guneak (eskalatzeko guneak, korrika egitekoak, saltoka ibiltzekoak...).
- Baratzeak, hondartegiak...
- Jolas sinbolikorako eremuak.
- Futbolaz gain, bestelako kirolak praktikatzeko eremuak.
- Mahai-jokoak eta jolas lasaiak egiteko eremuak.

3. KONPARAKETA

- Alderatu Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako patioak. Zertan dira berdinak? Zertan ezberdinak?

4. IRITZIA

Entzun baieztapena eta eman iritzia:

- "Patioa heziketarako beste gune bat da. Espazio publikoa da, eta harreman sozialak garatzen ikasten dute haur zein nerabeek".
- "Behar bereziak dituzten ikasleentzat egokiak dira gaur egungo patioak".

5. ESPERIENTZIA PERTSONALA

- Zer oroitzapen dituzu ikasle zinela ezagutu zenituen ikastetxeetako patioez?
- Asko aldatu dira orduetik hona?



ESKOLAKO PATIOA (HLEA)

